



## Hortzaginetako Komunitate Zerbitzua



# PADI - 2014

**EAEko haurren horzdura zaintzeari buruzko 118/90  
Dekretuaren garapenaren urteko txostena.**




**AURKIBIDEA**

	<b>Orrialdea</b>
<b>SARRERA.</b>	<b>2</b>
<b>2014. URTEKO EMAITZAK</b>	
1.- Erabilera.	5
2.- Maiztasuna.	9
3.- Hortzen asistentzia.	11
4.- Fakturazioa.	18
<b>UMEEN HORTZAGINEN OSASUNA 1988, 1998, 2008.</b>	<b>20</b>
<b>EGOERAREN ANALISIA.</b>	<b>23</b>
<b>ONDORIOAK.</b>	<b>25</b>
<b>ERANSKINAK.</b>	
I. eranskina: Erabilera 2014an; lurraldeka.	27
II. eranskina: Erabilera 2014an; erakunde sanitarioka.	28
III. eranskina: Erabilera 2014an; udalerrika.	31

## SARRERA

2014. urtean, 25 urte bete ditu PADI asistentzia-sistemak, Haurren Aho eta Hortzen Osasunaren programak, apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzak martxan jarri zuenetik. Lehen irudian, grafikoki ageri da zenbat haur atenditu diren 1990-2014 epean.

### 1. irudia. PADIren ezarpena eta garapena 25 urte honetan.




1988ko azterketa epidemiologikoak erakutsi zuen 14 urteko haurren %82k txantarra zutela —batez beste lau— eta erdiak baino gehiago tratatu gabeak zirela. Lesio konplexuak zituztenei —batez beste zortzi gainazaletan— betirako erasango zien, oro har, helduen hortzen osasunean. Osakidetzak haurren hortzen atentzioan segurantzarik ematen ez zuenez, batez ere familiarik behartsuenei gehiago kostatzen zitzairen haurren hortzak zaintzea.

Gauzak horrela, Osasun Sailak lehentasunezko interbentzio-alortzat jarri zuen haurren hortzen osasuna. Geroztik, uraren fluorizazioaren eskema ezarri da (49/1988 Dekretua), eta, horrekin, herritarren %78rengana iritsi da bi hamarkadatan; gainera, kalitatezko hortzen asistentzia-sistema bat ezarri da (PADI), eta, haren bidez, haur guztiei ziurtatzen zaie aldikako atentzioa behin betiko hortzak ateratzean eta handitzean. Osasun-politika honen helburua da haurrak osasuntsu haztea.

2014. urteko PADiren txosten honetan, datu hauek datoz: demografia, erabilera, asistentzia, kostuak eta zein eboluzio izan duten 2006tik 2014ra. Hortik kanpo, hortzen osasunaren 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikotik ateratako informazio konparatua dator, baita gaurko ereduaren analisisa ere.

## 2. Irudia. PADiren asistentziarako eskubidea izan duten 7 eta 15 urte bitarteko haur kopuruaren eboluzioa.




Aldaketa demografikoek, bereziki aurreko urteetan izandako jaiotza kopuruek, eragina dute ondoko urteetan PADirako eskubidea duten 7 eta 15 urte bitarteko haur kopuruan. PADIn sartutako haur kopurua txikitu egin zen hasierako fasean; gero egonkortu egin zen, eta, 2. irudian ageri den epean, 2005tik hona, goraka joan da.

Aurreko urteetan, 7 urteko kohortearen haur kopurua —sarrerako kohortearena— handiagoa izan da 15 urteko kohortearena —irteerako kohortearena— baino. Ondorioz, PADirako eskubidea duten haurren kopurua 37.146raino igo da 2006tik 2014ra. Hurrengo urteetako iragarpenen arabera, 2015erako eta 2016rako alegia, igoerari eutsiko zaio; urteko, 4.000 haur inguru gehiago. Iragarpena betetzen bada, hamar urtean, 45.000raino igoko da PADIn sartutako 7 eta 15 urte bitarteko haurren kopurua; hau da, adin tarte horretan, 2005ean baino %33 haur gehiago izango da 2015ean.

PADIn urtero sartzen den xede-populazioak markatzen du zenbat hurrek erabiliko duten, eta zuzenean eragiten du, urtero, sistemaren kostu ekonomikoetan.

Hortzen asistentzia emateko, familiako dentista asko erabiltzen dira, hala Osakidetzako profesionalak nola pribatu hitzartuak; horiek bermatzen dute PADIren eskuragarritasuna eta onargarritasuna. Ordu-tik hona izan diren administrazio-prozesuak 1990ean diseinatu zituen Osakidetzako Hortzaginetako Komunitate Zerbitzuak, eta hark kudeatzen ditu geroztik.

### 3. irudia. PADIren administrazio-prozesuak.



Urte hauetan, batetik haurren atenziorako protokolo klinikoak eta bestetik hitzartuetako dentistek emandako asistentzia kapitazio bidez ordaintzeko sistema eraginkorrak izan dira zainketa egokiak sustatzeko. Era berean, sistemaren kostu ekonomikoa mantendu egin da planifikazioan iragarri ziren parametroetan.


Emandako asistentziaren ondorioz, prebentzioz jokatuta eta osatze-tratamendu beharrezkoak aplikatuta, nabarmen hobetu da gure haurren eta gazteen hortzen osasuna. 2008ko azterketa epidemiologikoak erakutsi zuen 14 urteko haurren %61ek ez duela txantxarrik izan; adin horretan, txantxarraren batez bestekoa 0,9 izaten da, eta gainazal erasanen kopurua txikitu egin da 1,2ra arte. PADIren osasun-eremua bikaina izanagatik —uraren fluorizazio-eskemak eta hortzak garbitzeko orduan izan den hobekuntzak eragin nabarmena izan dute horretan—, ez dugu ahaztu behar 2008ko azterketa horrek era berean erakusten duela txantxarrak eragindako lesioen lautik batek ez duela tratamendurik jaso 12 eta 14 urte arteko umeengan.

## 2014. URTEKO EMAITZAK.

### 1. Erabilera.

4. irudian, grafikoz eta zenbakiz erakusten da 2014. urteko PADIren erabilera, asistentzia-sarearen arabera, eta nolako eboluzioa izan duen 2006tik. 2014an, EAEn bizi diren 7 eta 15 urte bitarteko haurren kopurua 182.329raino igo zen. Horietatik, 121.695ek jaso zuten PADIren hortz-atentzioa.

#### 4. irudia. PADIIn atenditu zuten haur kopurua, urteko eta asistentzia-sareko.




Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Osakidetza</b>	8.667	8.561	8.132	8.137	8.467	8.041	8.023	8.436	8.271
<b>Hitzartuak</b>	87.898	91.089	93.057	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424
<b>PADI</b>	<b>96.565</b>	<b>99.650</b>	<b>101.189</b>	<b>103.873</b>	<b>107.207</b>	<b>108.801</b>	<b>115.008</b>	<b>118.981</b>	<b>121.695</b>
<i>EZ-atendituak</i>	<i>48.618</i>	<i>50.821</i>	<i>53.117</i>	<i>55.221</i>	<i>57.538</i>	<i>61.709</i>	<i>59.557</i>	<i>60.819</i>	<i>60.634</i>
<b>Populazioa</b>	<b>145.183</b>	<b>150.471</b>	<b>154.306</b>	<b>159.094</b>	<b>164.745</b>	<b>170.510</b>	<b>174.565</b>	<b>179.800</b>	<b>182.329</b>

2006tik 2014ra, PADIk atenditutako haur kopuru osoa handitu egin da urtez urte; 2006an, 96.565 ziren, eta 2014an, 121.695. 25.130 haur gehiago izan ziren iaz, 25.526 haur gehiagok jotzen baitute hitzartutako asistentziara. Aldi berean, Osakidetzako baliabideen asistentzia txikitu egin da; 396 erabil-tzaile gutxiago hartu zituen iaz. EZ-atenditutako haurren kopurua 60.634raino igo zen 2014an.

5. irudian, PADIren 2014ko erabilera (kuota) ehunekoa ageri da, eta 2006tik izan duen eboluzioa, Osakidetzako/hitzartutako asistentzia-sarearen arabera.

2014an, hitzartuetako dentistek atenditu zituzten asistentzia-eskubidea duten 100 haurretatik 62; Osakidetzako dentistek, 5; eta PADIren atentziorik gabe gelditu ziren 33.

### 5. irudia. Atenditutako haurren ehunekoa, urteko eta asistentzia-sareko.




Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Osakidetza</b>	5,97%	5,69%	5,27%	5,11%	5,14%	4,72%	4,60%	4,69%	4,54%
<b>Hitzartuak</b>	60,54%	60,54%	60,31%	60,18%	59,94%	59,09%	61,29%	61,48%	62,21%
<b>EZ-atendituak</b>	33,49%	33,77%	34,42%	34,71%	34,93%	36,19%	34,12%	33,83%	33,26%
<b>Atendituen %</b>	<b>66,51%</b>	<b>66,23%</b>	<b>65,58%</b>	<b>65,29%</b>	<b>65,07%</b>	<b>63,81%</b>	<b>65,88%</b>	<b>66,17%</b>	<b>66,74%</b>

Aztertutako epean Osakidetzako haur atendituen kopurua ehuneko 1,5 gutxitu den bezala (%6tik %4,5era jaitsi da), ez da halako jaitsierarik izan hitzartutakoetan: epearen hasieran baino %1,7 gehiago izan dira 2014an.

2014an, urteko estaldura portzentajea 0,6 igo zen 2013tik. Epe horretan, xede-populazioko hiru ume-tik bik urtero erabili dute PADI. Urte hauetako eboluzioak erakusten du oso egonkorra izan dela eta gorabehera txikikoa. Hala, 2006an urteko estaldura %66,51 izan bazen, 2014an %66,74ri eutsi dio.

6. irudian, PADIren estalduraren (kuotaren) urte urteko ehunekoa dator, lurraldeka.

6. irudia. PADIIn lurralde bakoitzean atenditutako haurren ehunekoa.



Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>ARABA</b>	64,00%	64,06%	64,10%	63,97%	63,21%	61,74%	64,28%	64,13%	66,71%
<b>GIPUZKOA</b>	61,53%	61,39%	60,57%	61,23%	61,54%	60,23%	62,89%	62,78%	62,36%
<b>BIZKAIA</b>	70,50%	70,09%	69,43%	68,40%	67,97%	66,80%	68,33%	69,09%	69,73%
<b>EAE</b>	<b>66,51%</b>	<b>66,23%</b>	<b>65,58%</b>	<b>65,29%</b>	<b>65,07%</b>	<b>63,81%</b>	<b>65,88%</b>	<b>66,17%</b>	<b>66,74%</b>

Bizkaia da PADI martxan jarri zenetik estaldura handiena izan duena; urte bakoitzaren balantze orokorra igo egin dute demografiak (EAEko haurren %51 daude lurralde horretan), koadro fakultatibo ugariak eta emaitza onak. 2014an, Bizkaiko estaldura 0,64 puntu handitu da; Araban, 2,58; eta Gipuzkoan, jaitsi egin da 0,42 puntu.

Aztertutako epeari dagokionez, ikusten da urteko estalduraren ehunekoaren diferentziala murriztu egin dela; hasieran bederatzi puntukoa bazen, azken urteetan zazpi puntukoa da. Izan ere, Arabako eta Gipuzkoako adierazleak handitu egin dira, eta Bizkaikoa, berriz, txikitu. Hala ere, berdina da hiru lurraldeen arteko urteko estalduraren gradientea.



I eta II tauletan, ikus daiteke PADIn 7 eta 15 urte bitarteko zenbat haurrek erabili duten 2014an Osakidetza asistentzia sanitarioa osatzen duten zerbitzu-erakundeetako bakoitza. Datuak asistentzia-sarearen arabera datoz, Osakidetza/hitzartua.

**I. taula. PADIn erabilera 2014an, asistentzia-sarearen arabera, Osakidetza erakunde sanitario bakoitzean.**

Erak. sanitarioa	POPULAZIOA	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI	KUOTA
DEBABAR.-ESI	5.948	491	3.788	4.279	71,94%
BARRUA-G.-ESI	25.831	387	18.183	18.570	71,89%
URIBEKO E.	19.138	28	13.623	13.651	71,33%
EZKERRA-ENK.	12.677	99	8.679	8.778	69,24%
BARAK-SEST.	9.268	185	6.165	6.350	68,52%
BILBO-BAS.-ESI	26.754	230	17.719	17.949	67,09%
ARABAKO E.	24.426	832	15.312	16.144	66,09%
GIPUZKOA	36.970	3.557	19.955	23.512	63,60%
BIDASOKO ESI	7.172	1.103	3.278	4.381	61,08%
GOIERRI UG-ESI	8.757	1.263	3.848	5.111	58,36%
DEBAGOIENKO	5.388	96	2.874	2.970	55,12%
<b>EAE</b>	<b>182.329</b>	<b>8.271</b>	<b>113.424</b>	<b>121.695</b>	<b>66,74%</b>

**II. taula. Osakidetzaren/Hitzartuaren ehunekoak, erakunde sanitarioa, atenditutako guztiak kontuan hartuta.**

Erak. sanitarioa	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI
BIDASOKO ESI	25,2%	74,8%	100%
GOIERRI UG-ESI	24,7%	75,3%	100%
GIPUZKOA	15,1%	84,9%	100%
DEBABAR.-ESI	11,5%	88,5%	100%
ARABAKO E.	5,2%	94,8%	100%
DEBAGOIENKO	3,2%	96,8%	100%
BARAK-SEST.	2,9%	97,1%	100%
BARRUA-G.-ESI	2,1%	97,9%	100%
BILBO-BAS.-ESI	1,3%	98,7%	100%
EZKERRA-ENK.	1,1%	98,9%	100%
URIBEKO E.	0,2%	99,8%	100%
<b>EAE</b>	<b>6,8%</b>	<b>93,2%</b>	<b>100%</b>

2014an, erakunde sanitario guztietan, nabarmen egon zen hitzartutako asistentzia Osakidetzak bere baliabideekin eskaintakoaren gaineratik. PADIn atentzioaren %93,2 hitzartutako dentistek eman zuten. Bidasoa ESI (%25,2) eta Goierri ESI (%24,7) besteetan baino nabarmen gehiago erabili zuten haurrek Osakidetzako dentisten sarea. Beste muturrean Uribeko Eskualdea dago (%0,2). Urteko estaldura-indizeari dagokionez: %71tik gorakoa izan zen Debarrenen ESI, Barrualdeko ESI eta Uribeko Eskualdean.

## 2. Maiztasuna.

Haurrek asistentziarako eskubidea duten adin tartean (7 eta 15 urte), honela sailkatzen da erabilera-eredua (maiztasuna): "konstantea", haurrak PADIn sartuta egon den urte guztietan erabiltzen duenean; "batere ez", PADlra inoiz joan ez denean; eta "tarteka", bederatzi urte horietako batean edo noizbehinka erabili badu baina ez urtero.

### III. taula. Maiztasuna 2014an. Erabilera konstantea, tartekakoa eta batere gabekoa, kohorteka.

2014. urtea	POPULAZIOA	KONSTANTEA	TARTEKA	BATERE EZ
<b>15 urte</b>	18.490	5.298	11.514	1.678
<b>14 urte</b>	19.055	5.971	11.325	1.759
<b>13 urte</b>	19.197	6.577	10.811	1.809
<b>12 urte</b>	19.757	7.343	10.395	2.019
<b>11 urte</b>	20.788	8.411	10.016	2.361
<b>10 urte</b>	21.165	9.092	9.316	2.757
<b>9 urte</b>	21.062	10.587	7.140	3.335
<b>8 urte</b>	21.186	11.974	4.874	4.338
<b>7 urte</b>	21.629	14.403	0	7.226

2014. urtea	POPULAZIOA	KONSTANTEA	TARTEKA	BATERE EZ
<b>15 urte</b>	100%	28,7%	62,3%	9,1%
<b>14 urte</b>	100%	31,3%	59,4%	9,2%
<b>13 urte</b>	100%	34,3%	56,3%	9,4%
<b>12 urte</b>	100%	37,2%	52,6%	10,2%
<b>11 urte</b>	100%	40,5%	48,2%	11,4%
<b>10 urte</b>	100%	43,0%	44,0%	13,0%
<b>9 urte</b>	100%	50,3%	33,9%	15,8%
<b>8 urte</b>	100%	56,5%	23,0%	20,5%
<b>7 urte</b>	100%	66,6%	-	33,4%

2014ko irteerako kohortean, 15 urtekoetan, laurden bat baino gehiago joan zen PADlko dentistengana (%28,7) estaldura ematen den bederatzi urteetan.

2014an, 15 urteko haurren %91k erabili du PADl gutxienez behin, 7 urtetatik hona. Horien batez bestekoa (erabilera konstantea gehi tartekakoa) bederatzi urte posibleetatik 6,41 da (%71,2). Tarteka erabili duten haurrena, %62,3rena, bederatzi urte posibleetatik 5,21 izan zen (%57,9).

IV. taulan kohorte bakoitzaren erabilera deskribatzen da aztertutako epean, eta ikusten da nola sistemaren erabilera gutxitzen den haurren adina gora doan heinean. Kasu guztietan, gutxiago erabiltzen dute programa 15 urtekoek 7 urtekoek baino.

**IV. taula. Kohorteen erabilera, 2006tik 2014ra.**

<b>Urteak &gt;</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>
Kohort. 1991 >	<b>56,61</b>								
Kohort. 1992 >	61,17	<b>57,85</b>							
Kohort. 1993 >	64,09	60,82	<b>57,57</b>						
Kohort. 1994 >	67,48	64,35	60,89	<b>58,01</b>					
Kohort. 1995 >	69,27	66,83	63,93	61,18	<b>59,04</b>				
Kohort. 1996 >	69,70	68,67	66,79	63,75	61,55	<b>57,64</b>			
Kohort. 1997 >	70,00	69,34	67,50	66,24	64,11	60,91	<b>60,74</b>		
Kohort. 1998 >	70,44	68,69	68,07	67,49	65,24	62,65	62,55	<b>60,45</b>	
Kohort. 1999 >	<b>69,39</b>	70,03	68,36	67,95	67,46	65,14	64,52	62,71	<b>61,51</b>
Kohort. 2000 >		<b>68,36</b>	68,44	66,77	67,05	65,57	66,61	64,65	64,12
Kohort. 2001 >			<b>67,28</b>	68,25	67,19	66,24	67,55	66,90	65,76
Kohort. 2002 >				<b>66,44</b>	67,09	65,71	68,18	68,66	67,64
Kohort. 2003 >					<b>65,61</b>	65,68	67,70	68,44	68,73
Kohort. 2004 >						<b>63,56</b>	67,26	67,38	68,90
Kohort. 2005 >							<b>66,61</b>	68,48	68,11
Kohort. 2006 >								<b>66,71</b>	68,43
Kohort. 2007 >									<b>66,59</b>
<b>PADI &gt;</b>	<b>66,51</b>	<b>66,23</b>	<b>65,58</b>	<b>65,29</b>	<b>65,07</b>	<b>63,81</b>	<b>65,88</b>	<b>66,17</b>	<b>66,74</b>

Irteerako kohortearen estalduraren ehunekoa igo egin da epe horretan; sarrerako kohortearena, berriaz, jaitsi.

Adin handiagoko kohortek PADI gutxiago erabiltzen dutenez, beharbada horregatik dago ehuneko konstante bat (lautik bat) tratatu gabeko lesioekin 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetan.

### 3. Hortzen asistentzia.

PADlren protokolo klinikoetan dator behin-behineko hortzetan txantxarra izan duten haur guztiei hagin iraunkorretan fisura-ixtekoak jarri behar zaizkiela. Era berean, motibo medikoengatik, biologikoengatik edo sozialengatik arriskupean daudela kontsideratzen diren haurrei ere jarri behar zaizkie fisura-ixtekoak, oklusio-gainazaletan txantxarra ateratzea prebenitzeko.

2014an emandako asistentzia, V. eta VI. tauletan dator. Bi tauletan ikusten da behin betiko hortzen asistentziaren bolumen osoa eta horren ehunekoa (profila). V. taulak Asistentzia Orokorra irudikatzen du; VI. taulan, berriz, traumatismoengatik edo malformazioengatik ebakortzetan Asistentzia Gehigarria jaso dutenak datoz.


**V. taula. PADlren Asistentzia Orokorra 2014an.**

	<b>KOP. OSOA</b>	<b>PROFILA</b>
<b>Berrikuspenak</b>	121.695	100,00
<b>Fisura-ixteak</b>	18.539	15,23
<b>Obturazioak</b>	20.185	16,59
<b>Erauzketak</b>	995	0,82
<b>Pulpa-tratamenduak</b>	299	0,25

**VI. taula. PADlren Asistentzia Gehigarria 2014an.**

	<b>KOP. OSOA</b>	<b>PROFILA</b>
<b>Asist. Gehigarriko haurrak</b>	1.644	1,35
<b>Obturazioak</b>	623	0,51
<b>Berregiteak</b>	1.415	1,16
<b>Apikoformazioak</b>	18	0,01
<b>Endodontziak</b>	141	0,12
<b>Koroak</b>	58	0,05
<b>Erauzketak</b>	17	0,01
<b>Mantentzaileak</b>	13	0,01


2014an PADlren bitartez jasotako asistentzian, atenditutako haurrei egindako prozedura prebentiboak eta erreparatzaileak datoz.

**7. irudia. 2014an ehun haurretatik zenbateren Asistentzia Orokorra; kohorteka.**


Adina > Kohortekak >	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	GUZTIRA
Berrikusketak	14.403	14.497	14.345	14.583	14.288	13.363	12.623	12.219	11.374	<b>121.695</b>
Fisura-ixteak	4.562	3.605	2.246	1.584	1.206	1.272	1.538	1.301	1.225	<b>18.539</b>
Obturazioak	1.173	1.831	1.721	1.831	1.938	2.321	2.547	3.134	3.689	<b>20.185</b>
Erauzketak	115	87	113	123	131	140	97	118	71	<b>995</b>
Pulpa-trat.	10	19	27	27	32	29	38	61	56	<b>299</b>

Adina > Kohortekak >	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	GUZTIRA
Berrikusketak	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	<b>100,00</b>
Fisura-ixteak	31,67	24,87	15,66	10,86	8,44	9,52	12,18	10,65	10,77	<b>15,23</b>
Obturazioak	8,14	12,63	12,00	12,56	13,56	17,37	20,18	25,65	32,43	<b>16,59</b>
Erauzketak	0,80	0,60	0,79	0,84	0,92	1,05	0,77	0,97	0,62	<b>0,82</b>
Pulpa-trat.	0,07	0,13	0,19	0,19	0,22	0,22	0,30	0,50	0,49	<b>0,25</b>


PADren protokolo klinikoetan datorren ereduaren arabera eman zaio kohorte bakoitzari Asistentzia Orokorra, eta adin txikikoetan, gehiago egiten dira fisura-ixteak obturazioak baino. Erauzketak eta pulparen tratamenduak maizago egiten zaizkie adin handiagoko haurrei, baina adin guztietan dira kopuru nahiko apalak.

**8. irudia. Hurrek jasotako Asistentzia Orokorren eboluzioa, ehunekotan; 2006-2014.**


Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Berrikusketak	96.565	99.650	101.189	103.873	107.207	108.801	115.008	118.981	121.695
Fisura-ixteak	38.420	37.605	36.232	36.439	35.325	30.459	25.410	22.600	18.539
Obturazioak	21.016	20.931	20.952	18.563	20.697	19.862	21.402	21.062	20.185
Erauzketak	436	454	458	454	493	541	894	853	995
Pulpa-trat.	361	359	401	351	340	292	430	394	299

Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Berrikusketak	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00
Fisura-ixteak	39,78	37,73	35,80	35,08	32,95	28,00	22,09	18,99	15,23
Obturazioak	21,76	21,04	20,70	17,87	19,31	18,26	18,61	17,70	16,59
Erauzketak	0,45	0,45	0,45	0,44	0,46	0,50	0,78	0,72	0,82
Pulpa-trat.	0,37	0,36	0,39	0,34	0,32	0,27	0,37	0,33	0,25



Urte bakoitzean emandako Asistentzia Orokorren bolumen osoa eta profila jaitsiz joan da 2006tik 2014ra, bai fisura-ixteen arloan bai obturazioenean. 2014an PADIn emandako asistentzia orokorraren profila aurreko urteetako eboluzioaren jarraipena da, eta ikusten da aldea dagoela Osakidetza sareen eta hitzartuen profilen artean.

**9. irudia. 2014an emandako Asistentzia Orokorra; Osakidetzaren/Hitzartuen asistentzia sareka.**


	Osakidetza	Hitzartua	GUZTIRA
<b>Berrikusketak</b>	8.271	113.424	<b>121.695</b>
<b>Fisura-ixteak</b>	3.270	15.269	<b>18.539</b>
<b>Obturazioak</b>	2.308	17.877	<b>20.185</b>
<b>Erauzketak</b>	117	878	<b>995</b>
<b>Pulpa-trat.</b>	65	234	<b>299</b>

	Osakidetza	Hitzartua	GUZTIRA
<b>Berrikusketak</b>	100,00	100,00	<b>100,00</b>
<b>Fisura-ixteak</b>	39,54	13,46	<b>15,23</b>
<b>Obturazioak</b>	27,90	15,76	<b>16,59</b>
<b>Erauzketak</b>	1,41	0,77	<b>0,82</b>
<b>Pulpa-trat.</b>	0,79	0,21	<b>0,25</b>

9. irudian, zera ageri da, 2014an Osakidetzako fakultatiboek eta hitzartuetako dentistek emandako Asistentzia Orokorraren profila. 11. eta 12. irudiek, berriz, erakusten dute asistentzia-sare bakoitzean zer-nolako garapena izan duen Asistentzia Orokorrak, 2006tik 2014ra.

**11. irudia. Osakidetzaren Asistentzia Orokorren garapena, 2006-2014.**

**12. irudia. Hitzartuetako Asistentzia Orokorren garapena, 2006-2014.**




VII. eta VIII. taulatan, hurrenez hurren datoz Osakidetzako baliabideen eta hitzartuetako dentisten bitartez PADIn emandako Asistentzia Orokorren gutzizkoen eta profilen zenbakiak, 2006tik 2014ra. 11. eta 12. irudiek informazio grafikoa osatzen dute.

**VII. taula. Osakidetzaren Asistentzia Orokorren garapena, 2006-2014.**

Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Berrikusketak</b>	8.667	8.561	8.132	8.137	8.467	8.041	8.023	8.436	8.271
<b>Fisura-ixteak</b>	7.458	7.900	7.119	6.433	5.694	4.101	4.152	4.701	3.270
<b>Obturazioak</b>	2.917	2.885	2.683	2.169	2.359	1.970	2.398	2.709	2.308
<b>Erauzketak</b>	111	117	124	97	92	107	137	127	117
<b>Pulpa-trat.</b>	67	72	85	73	70	40	48	93	65

Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Berrikusketak</b>	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<b>Fisura-ixteak</b>	86,05	92,28	87,54	79,06	67,25	51,00	51,75	55,73	39,54
<b>Obturazioak</b>	33,66	33,70	32,99	26,66	27,86	24,50	29,89	32,11	27,90
<b>Erauzketak</b>	1,28	1,37	1,52	1,19	1,09	1,33	1,71	1,51	1,41
<b>Pulpa-trat.</b>	0,77	0,84	1,05	0,90	0,83	0,50	0,60	1,10	0,79

**VIII. taula. Hitzartuetako Asistentzia Orokorren garapena, 2006-2014.**

Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Berrikusketak</b>	87.898	91.089	93.057	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424
<b>Fisura-ixteak</b>	30.962	29.705	29.113	30.006	29.631	26.358	21.258	17.899	15.269
<b>Obturazioak</b>	18.099	18.046	18.269	16.394	18.338	17.892	19.004	18.353	17.877
<b>Erauzketak</b>	325	337	334	357	401	434	757	726	878
<b>Pulpa-trat.</b>	294	287	316	278	270	252	382	301	234

Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Berrikusketak</b>	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<b>Fisura-ixteak</b>	35,22	32,61	31,29	31,34	30,01	26,16	19,87	16,19	13,46
<b>Obturazioak</b>	20,59	19,81	19,63	17,12	18,57	17,76	17,76	16,60	15,76
<b>Erauzketak</b>	0,37	0,37	0,36	0,37	0,41	0,43	0,71	0,66	0,77
<b>Pulpa-trat.</b>	0,33	0,32	0,34	0,29	0,27	0,25	0,36	0,27	0,21

Bi saretan Osakidetzan eta hitzartuan ematen den asistentziak oso profil diferenteak dituzte. Osakidetzan, hiru aldiz fisura-ixte gehiago dago sare hitzartuan baino. Era berean, Osakidetzako dentistek atenditutako umeei obturazio, erauzketa eta pulpa-tratamendu gehiago egin behar izan zaizkie, eta, hala, ikusten da sare publiko hori konplexutasun mediko eta sozial handiagoko erabiltzaileek erabili dutela.

IX. eta X. taulek PADiko asistentziaz dagoen informazioa osatzen dute. IX. taulan ematen dira Asistentzia Gehigarriari dagozkion datuak, 2006-2014 epean.

**IX. taula. PADIn emandako Asistentzia Gehigarriaren garapena, 2006-2014.**

Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Asis. Gehigarriko haurrak</b>	1.822	1.733	1.846	1.812	1.904	1.826	1.635	1.626	1.644
<b>Obturazioak</b>	913	819	850	795	823	682	658	623	623
<b>Berregiteak</b>	1.386	1.361	1.499	1.513	1.668	1.666	1.401	1.427	1.415
<b>Apikoformazioak</b>	57	59	85	89	56	52	41	23	18
<b>Endodontziak</b>	185	203	204	220	206	172	154	158	141
<b>Koroak</b>	57	47	29	18	38	49	45	41	58
<b>Erauzketak</b>	38	30	32	36	28	35	24	31	17
<b>Mantentzaileak</b>	14	13	10	16	14	10	8	8	13

Urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
<b>Asis. Gehigarriko haurrak</b>	1,89	1,74	1,82	1,74	1,78	1,68	1,42	1,37	1,35
<b>Obturazioak</b>	0,95	0,82	0,84	0,77	0,77	0,63	0,57	0,52	0,51
<b>Berregiteak</b>	1,44	1,37	1,48	1,46	1,56	1,53	1,22	1,20	1,16
<b>Apikoformazioak</b>	0,06	0,06	0,08	0,09	0,05	0,05	0,04	0,02	0,01
<b>Endodontziak</b>	0,19	0,20	0,20	0,21	0,19	0,16	0,13	0,13	0,12
<b>Koroak</b>	0,06	0,05	0,03	0,02	0,04	0,05	0,04	0,03	0,05
<b>Erauzketak</b>	0,04	0,03	0,03	0,03	0,03	0,03	0,02	0,03	0,01
<b>Mantentzaileak</b>	0,01	0,01	0,01	0,02	0,01	0,01	0,01	0,01	0,01

<b>PADIn atenditu gabekoak</b>	<b>96.565</b>	<b>99.650</b>	<b>101.189</b>	<b>103.873</b>	<b>107.207</b>	<b>108.801</b>	<b>115.008</b>	<b>118.981</b>	<b>121.695</b>
--------------------------------	---------------	---------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------

X. taulan, 2014an Zerbitzu Erakunde bakoitzeko haurrek jasotako Asistentzia Orokorren profila ageri da, bai Osakidetza dentistek bai hitzartuetakoek emandakoa.

**X. taula. 2014an emandako Asistentzia Orokorren profila; zerbitzu-erakundeka.**


Erak. sanitarioak >	ARAB.	EZK	GIP	URIB. E.	DG-ESI	DB-ESI	BID. ESI	GDI. ESI	B-S. ESI	B-GESI	B-B. ESI	EAE
<b>Berrikusketak</b>	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	<b>100</b>
<b>Fisura-ixteak</b>	10,60	12,82	13,59	12,28	7,88	12,43	20,63	13,79	25,91	18,75	18,55	<b>15,23</b>
<b>Obturazioak</b>	15,06	15,20	18,14	10,73	22,32	30,73	16,98	23,36	14,87	18,87	12,95	<b>16,59</b>
<b>Erauzketak</b>	1,70	0,51	0,57	0,41	1,04	2,85	0,48	0,59	0,93	0,63	0,58	<b>0,82</b>
<b>Pulpa-trat.</b>	0,25	0,16	0,31	0,10	0,34	0,84	0,41	0,25	0,14	0,20	0,20	<b>0,25</b>

#### 4. Fakturazioa.

2014. urteko aurrekontuetan, PADIrako hitzartutako familia-dentistek 4.995.169 euro fakturatu dizkiote Osasun Sailari; 44,04 euro haur bakoitzeko.

Kopuru horretatik, 4.845.719 euro, %97, sistemaren Asistentzia Orokorrerako egindako kapitazioen ordainak dira; besteak beste, hortzen azterketak, fisura-ixteak, obturazioak, erauzketak eta behin betiko hortzetako pulpen tratamenduak; eta 149.450 euro, %3, Asistentzia Gehigarriaren kontzeptupean doaz, hau da, ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen tratamenduetan.


#### 13. irudia. PADIrako hitzartutako asistentziaren kostuaren eboluzioa; milioi eurotan.



Aurrekontu urtea >	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Asistentzia Orokorraren kostua	3.256.000	3.565.327	3.875.026	4.072.696	4.167.299	4.242.419	4.496.699	4.762.590	4.845.719
Asistentzia Gehigarriaren kostua	131.667	125.599	143.226	146.136	156.278	149.622	131.542	143.424	149.450
<b>Hitzartutako guztizkoa</b>	<b>3.387.667</b>	<b>3.690.926</b>	<b>4.017.321</b>	<b>4.218.832</b>	<b>4.323.578</b>	<b>4.392.040</b>	<b>4.628.242</b>	<b>4.906.015</b>	<b>4.995.169</b>
Hitzartuta atenditutako haurrak	87.898	91.089	93.057	95.736	98.740	100.760	106.985	110.545	113.424
<b>Haur bakoitzaren kostua urteko</b>	<b>38,54</b>	<b>40,52</b>	<b>43,17</b>	<b>44,07</b>	<b>43,79</b>	<b>43,59</b>	<b>43,26</b>	<b>44,38</b>	<b>44,04</b>
Kapitazioa, kostuaren %	96,1%	96,6%	96,5%	96,5%	96,4%	96,6%	97,2%	97,1%	97,0%
Hortzen itema, kostuaren %	3,9%	3,4%	3,6%	3,5%	3,6%	3,4%	2,8%	2,9%	3,0%

14. irudian, Asistentzia Orokorreraren irabazien garapena dator (kapitazioa haur bakoitzeko/urteko), 2006tik 2014ra. 2007an, adin handiagoko kohorteetarako ordainketa berezia egiten hasi zen.

#### 14. irudia. Asistentzia Orokorrerako irabazien garapena (kapitazioa); eurotan.



Osakidetzan, PADIn ari diren familiako dentistek 357.772 euro fakturatu dituzte 2014. urtean, Osasun Sailaren bitartez, bakoitzaren Erakunde Zerbitzuetako Kontratu Programaren bitartez; 43,26 euro haur bakoitzeko.


Kopuru horretatik, 351.804 euro, %98,3, sistemaren Asistentzia Orokorrerako egindako kapitazioen ordainak dira; besteak beste, hortzen azterketak, fisura-ixteak, obturazioak, erauzketak eta behin betiko hortzetako pulpen tratamenduak, eta 5.968 euro, %1,7, Asistentzia Gehigarriaren kontzeptupean doaz; hau da, ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen tratamenduetan.

## UMEEN HORTZAGINEN OSASUNA. AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKOAK 1988, 1998 eta 2008.


1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoen —OME metodologia erabilia EAeko haurren hortzen osasunaren garapena ebaluatzeko eginak— oso hobekuntza handia erakusten dute lehen hamar urteetan (1988-1998), eta jarraipena izan dute ondoko hamar urteetan (1998-2008). Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ezarri zuen hortzen osasunaren politika, duela hogeita urte, eta orain, haurrek txantxarra gutxien duten herrialdeetako bat da.

Nabarmenezkoa da bi indizeetan —CAOD eta CAOS— nolako hobekuntza izan den, asko gutxitu baitira, kopuruz eta konplexutasunez, txantxarren lesioak; horrenbestez, tratamenduak ere gutxitu egin dira, eta, konponketen ondorioz, hortzen batez besteko bizitza luzatu egin da. Datu hori eta txantxarrik gabeko haurren ehuneko handia —CAO=0, 14 urtekoek %61 2008ko azterketan— aukera paregabea da belaunaldi berriek hortzen eta norbere osasun hobez gozatzeko helduaroan.


### 15. irudia. CAOD indizea 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetan.




16. irudia. CAOS indizea 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetan.



17. irudia. Txantxarrik gabeko haurren ehunekoa (CAO=0), 1988an, 1998an eta 2008an.



**18. irudia. CAODen atalak, 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetan.**


CAOD indizeko atalen garapenaren azterketan, 1988-1998 epean txantxar aktiboak asko gutxitu direla ikusten da, eta, horretarako, ez da obturazio kopurua igo behar izan. 1998an, erauzketen atala dagoneko oso apala zen. 1998-2008 epean ere, hiru atalak, "txantxartua", "obturatua" eta "erauzia", asko gutxitu dira.

